



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
31. alea | 2008ko Ekaina/A | nazioartea@euskaleskola.org |
<http://www.euskaleskola.org/>

EUROPAKO JENDARTE FOROA: MALMÖ



Irailaren 17tik 21era Suediako Malmö hirian Europako Jendarte Foroaren 2008ko edizioa ospatuko da. 4 egunez ehundaka jarduera egongo dira bestelako mundu bat posible dela Europan ere adierazteko asmoz. 20.000 pertsona bertan biltzea espero da eta 5 egunez eztabaida ezberdinak irekitzea.

Euskal Herriak Bere Eskolak izena eman du, baita hitzaldi bat erregistratu, “Self-determination in Education, the basque experience” izenburupean. Oraindik hitzaldia eman ahal izango den zehazteke badago ere (dagoen eskaera bolumena dela eta baliteke beste hitzaldiren batekin batu behar izatea) Euskal Herriko hezkuntza mugimenduak bere lekua izango du Suedian ere.

Izena eman duten eragileek ehunka jarduera proposatu dituzte Foroan egin ahal izateko. Horieta asko hezkuntzarekin lotzen dira, eta Euskal Herrian darabiltzagun kontzeptu berdinen inguruan jarduten dute: nola eraiki guztientzat baliagarria izango den, hezkuntza eskubide guztiak errespetatuko dituen eta guztien esku egongo den Hezkuntza Sistema berri bat? Laster berri gehiago gai honen inguruan!

Informazio gehiagorako:

<http://www.esf2008.org>

INTERNAZIONALISTA EGUNA ELORRION

Ekainaren 14an “Boikota piztuz, elkartasuna eraiki!” lelopean Internazionalista Eguna ospatuko da Elorrion. Aste osoan zehar hainbat ekimen deitu dituzte, baina dudarik gabe egun oparoena larunbatekoa izango da. Honakoa da bertan prestatu den egitaraua:

- 9:30tan Harre instituzionala
- 11tan Euskal Herria-Palestina haurrentzako txokoa irekiko da.
- 13tan Coca-Colaren aurkako berso-poteoa hasiko da herriko plazatik eta 14:30tan Herri bazkaria egongo da.
- 16:30tan “Askapenaren brigadak” argazki proiektzioa egongo da eta bertso-olerki musikatuak “A desalambrar” izenburupean.
- 18tan Manifestaldia eta ekitaldi politikoa abiatuko da.
- Gauean Askapenak 20 urte! Jaia egongo da Ateneoan.

Informazio gehiagorako:

http://www.askapena.org/berriak/men/karpeta_eu/514/ind_aska

HEZKUNTZAREN PRIVATIZAZIOAREN AURKA HEGO AMERIKAN

Urteak dira Europan hezkuntzaren privatizazioaren aurkako mugimenduak sortu direla. Hauetariko batzuek Munduko Merkataritza Erakundea (MME) kritikatzeko dute, bera baita privatizazio prozesu horren sortzaileetako bat. Europan horren eragina Bologna Prozesua da, besteak beste ikasle mugimendu ezberdinei esker aurrera jarraitzeko arazoak aurkitu dituen prozesua. Grezian, adibidez, Bolognaren aplikazioa gelditzea lortu dute.

Hego Amerikan egoera ere larria da. MMEk ezartzen dituen irizpideak bete behar badituzte neoliberalismoan sakondu eta euren herrietako Hezkuntza Sistemak egoera oso okerrean geratuko lirake. Hori dela eta joan zen astean, EEBBtan Bilderberg kluba biltzen zen egun beretsutan, Hego Amerika eta Karibeko 33 herrialde ezberdinetako hezkuntza ministro eta arduradunak Cartagena de Indiasen (Kolonbia) bildu ziren, MMEren akordioek euren Hezkuntzan izango zituzten eraginak aztertzeko asmoz. Ondorio nagusia honakoa: “Latinoamerika eta Karibeko herrialdeei Munduko Merkataritza Elkartearen akordioak onartzeak dakartzen arriskuei buruz ohartarazi nahi ditugu. Hauek onartzerakoan derrigorturik egongo dira, besteak beste, ondasun publikoa euren herrialdetan dabilzan atzerriko enpresa pribatuei ematera, bertan agertzen den *trataera nazionalaren* printzipioa dela eta.” Hau da, kanpoko enpresa batek hezkuntza zerbitzuak zure herrialdean eman nahiko balitu derrigorturik zaude dirua ematera eta gainera zure herrialdekoa balitz bezala tratatzen.

MMEren akordio honetan finkatzen dena kritikatzeko jarraitu zuten, gainera. Bileraren helburuetako bat hurrengo urtean Parisen egingo den bilerara testu komun bat eramatea izan zen. Hasieran kezka handia zegoen herrialde guztien politika ezberdinak zirela eta gai izango ote ziren testu komun bat adosteko. Baina azkenean lortu zuten. Deklarazioak 7 ardatz ditu:

- 1- Goi Hezkuntza giza eskubide bat dela aldarrikatzen da, eta jendartearen onura publiko bat. Hezkuntzaren globalizazioak duen eragin bakarra nazioarteko enpresen boterearen handitzea da eta, beraz, ezartzen diren herrialdearen boterea oraindik gehiago murriztea. Hezkuntza negozio gai ez izatea aldarrikatzen dute, merkantilizazioa eta privatizazioa indartzen duten korranteak kritikatu.
- 2- Hezkuntza herritar guztien eskura egon behar badu, neurriak hartu behar dira hurrengo hamarkadetan hori horrela izan dadin, batez ere historikoki eskubide hori ukatu zaien taldeekiko (jatorri afrikarrekikoak, pobreak, jatorrizko herriak, errefuxiatuak eta langile klasea). Unibertsitate herritarraren kontzeptuaren inguruan ere hitz egiten du.
- 3- Goi mailako hezkuntza balio sozial erantsia du, eta hezkuntzak ikasle bakoitza gizabanako gisa eta gizartekide gisa hezi behar ditu.
- 4- Hezkuntzako alor guztiak (humanistikoa edo zientifikoa izan) garapen iraunkorrean oinarritu behar dira. Alor guztiek garrantzi bera dute, hau da, ez du garrantzi gehiagorik ikerkuntza zientifiko-teknologikoak humanistikoak baino edo alderantziz.
- 5- Sare akademikoak sendotu behar dira. Sare hauek nazioartekoak ere izan daitezke nazioarteko arazoei irtenbidea bilatzeko.
- 6- Burmuinen ihesari aurre egin behar zaio. Ez da zilegi Iparraldeko estatuek Hegoaldeko herritarrak lapurtzea, horrela ez baita lortuko herrialde hauen garapena.
- 7- Hego Amerika eta Karibean hezkuntzaren inguruan hitz egiteko foro bat sortzea beharrezkoa da, eta horrekin batera Hego Amerikako Goi Hezkuntza Esparru bat, eskualdearen garapena eta kohesioa bermatuko duena.

Dokumentu osoa hemen laburbiltzea oso zaila bada ere, hauek dira bertan bota ziren ideia nagusiak. Nahi duenak beheko loturetan osorik irakur dezake, baita eginiko beste ekarpen oso bat eta beste hainbat dokumentu interesgarritara lotura. Dokumentuak honako bukaera ematen du, Gabriel Garcia Marquezen hitzak erabilita: “una nueva y abrasadora utopía de la vida, donde nadie pueda decidir por otros hasta la forma de morir, donde de veras sea cierto el amor y sea posible la felicidad, y donde las estirpes condenadas a cien años de soledad tengan por fin y para siempre una segunda oportunidad sobre la tierra.”

Informazio gehiagorako:

<http://www.cres2008.org/es/index.php>

<http://www.oei.es/salactsi/cres.htm> (Deklarazio osoa)

http://www.cres2008.org/common/docs/renuniones_prep/Documento_OCLAE.doc (Ikasleen ekarpena)